

POLITEKNIKASTEGIDIA

ARRASATE'ko POLITEKNIKASTEGIDIA soin-gerri baten kimututa dagozan Ikastegiak orñitzen daben Ikastegi-Taldea da.

Ikastegi Talde oneitan eratu edo ardazturik dagozan Ikastegion bizi-gai ta muñetako ezti bizigarritsua LANA ta LANERAKO jokame-na, LANERAKO zaletasun ta trebetasuna dira.

Lana da ardazpidea, lana indargarri ta jokabide emoikorra. Lan-kutsu ta izpitan girotatuko eziketa IKASTEGIDI onetan moldagarri gizakorra edo gizatsua.

Lan-kutsu ta zaletasun gabeko giza-eziketa munda onetarako baño ames edo iruditu al izan dogun atsegintegirako egokiagoa izango litzake.

Ederra da gure lurraldea baño ezta berez aberatsa ta emoikorra: lanaren eskuz ta langilleen almenez naruto ta bizigarritu dogu orain arte ta aurrera be ikusmira-gosez dabilzakenekin baño lanari tinko ta trebe ekiten dagienekin obeto eratu al izango dogu danontzako bizi-leku gozatsu ta amesgarriagoa egiñaz.

Jaiotez danok gara antzekoak, danok iñoren bearrean geranak, danok bizi al izateko izadiak berez barik lanaren etorpidez damoskiguna bear dogunak. Orixegaitik eziketaz jaiotez baño mamintsuago gizaki geranak lan-eziketa bearra dogu ta lan-ziketa orrein bidez suspertu ta indartu bearra lanerako jokera ta gogoia.

ARGIBIE oneitan ikaskizun eta ikasbide bat da beste danen gain eta beste edozer baño sakonago ta sendoako gure laguntzale ta erri osoari opa ta erakuski gengikoena.

Oran arte gazteak lanean trebe biurtzen jardun dogun baizen gogotsu ta adoretzu ekin dagigula ume ta ondorengo guztiak lanbide ta lan elkarte ta egingoetarako kutsu barritan giza-eziketan eta orretarako gure Umesaintza, Ikastala ta Ikastegi guztietan beste giro barri bat eratzen jarrai dagigula.

Norberez eta norberetan ikasi bearrekoa

Iñoren jakintza ta jakituriak bakoitzak norberatzen ez dituan artean bakoitza aske ta gizakor izateko gitxi balio dautsoe.

Lan giza-eziketan be bakoitzak berak, norberak norberanez nabaitu ta egistau bear ditu ikasketak eta ikasbideak berenez ongarri izan dagikoenaraño ongarritsu, gizagzosatsu izan al dagikeguzan.

Iñork ez bedi uste izan gure ume ta gazte guztiak berenez buru-ikasketaz gain lan-ikas eta eziketan kutsuturik ezertariko atzerakizunik izan dagikeenik bizi-moduan. Olaxe sortuarazoko dogu bakoitzaren mun-muñetan alkarrenganako begirapen aundiagoa ta sakonagoa.

¿Ezer besterik ba alda batak bestearen bearra daukagula azuñmuin eta biotz-biotzetaraño sustartu al izateko gizaki guztiotan lan egin bearra ta lanerako jokabideak eratu bearra baño egokiagorik?

Orretarako gogoia ta ekitea besterik ezer ez jaku palta: bado-gu astirik eta gañera beste ikaskizunai jarrai al izateko lanean eta lanbideetako ardurakizunetan ekantzea jolas egitearen antzeko atsedenkizuna da.

Gure laguntzale ta irakueleak ARGIBIDE oneitan ikusi ta jakin dagienez gure **POLITEKNIKASTEGIDIA** aurrera doa, indartzen ta zabalzten ari da.

Gure aberri ta lurraldea dan-danon bearrean dago oraingo late-rrion artean ikusgarri ta bere buruaren eta etorkizunaren jabe izan al dedin.

Sail zabal eta basterrik sasitsu asko ditugu apiandu ta narotu bearrekoak. Juantokeri ta jautxoak ezin onartu gengikez iñork be jaun eta jautxokerien tarte ta ondoren otseintza ta morroitzak era askotakoak izan dagikez ta morroitzta ta zapalketa basterik be ezin izan dagike.

#### AURRERAKA

Alkartasun girotan ta batasun ardatzean erakundetzen geran arlo ta sailak estuak diranik ezin onerazi gengike egunetik egu-nera, alditik aldira aurreraka ta zabalduaz doanez.

Iñork ukatu ta ito ezindako LAN-ELKARTEAK eratu ondoren eta eratzen gengioan artean be beste arazo ta kultura-egingo, osasun-gintza ta ekonomi ta gizarte eginbearretan be jarrai izan dogu.

Bakoitzak ezer gitxi egin dagikearren askok edo danok apurba-naka jokatu arazoz uste degiken baño geiago egin al izan oi da.

Liburutegi ta ikastegi barrenetan ikasi gengikena asko izan-arren ekiñetan eta jardunez-jardun ikasi ta gertu al gengikena geiago izango da. Ikastun baño egintsu munduan zear ezagunagoak eta maitagarriagoak izan gara guretarrok.

Jakitez gañezka ta egitez larri lorretan dabil gure mundu ta gizarteau. Jakin badakigu zer dan ohea edo onena baña egin oi daroaguna kaskarra, zikoitzta izan oi da. Oiu ta garraxi gitxiago ta saio ta zintzotasun geiago ta askatasun eta zuzenbideetan tinko ta trebeago jarrai bearren gara danok.

Lana, lanbideak dira ta ez euri ta lurpeko aberas-obiak eta ezta lurgaiñean berez sortuz oi diran izakiak guk gure lurralde oneitan ugaldekor bizi geranok bear ditugun eskuarte.

#### Giza-eziketaz landurik

Gure ikasketa ta jakiruriak giza-eziketa kutsu barritan ondagarritu ta batez be gizagarritu al izango ditugu ume ta gazteak lantzeari badirautsagu egunean baño egunean bizi ta gogotsuago.

Gure irabazpide eta esku-sari guztietatik orretarako piska bana geiago eratu bear dogu orretan darabilkegun diru ta ondasunak beste edozein azi baño emoikorrigo ta ugaldekorragoak dira ta.

Eten gabe ta asperturikake daroaguzan maillarik-mailla ikaste-giok aurrera ta olaxe joan al izango dira gure tarteko ta ondoren-goak be gure ta euren onerako aurrera ta gora. Auxe da iñork ukatze-ke ta iñoren beste indar ek eragozteke gure aberria biziberritu al izateko ezereen zain egoteke ta aldirik galtzeke geure-geure argibidez ta jokabidez eratu bear eko arlotik emoikor ta itxaropentsugarriena.

Eskerrik asko la undu dauskuen guztiei, langille, elkarte ta agintari guztiei.